

3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatu-segmentua merkatu baten barruan identifika daitezkeen kontsumitzaileen talde handi eta homogeneoa da, desioak, erosteko ahalmena, kokapen geografikoa, erosteko jarrerak edo antzeko erosteko ohiturak dituen eta marketin-nahasketa baten aurrean antzera erreakzionatuko dutenak.

Gure zerbitzuaren bezero segmentua hirugarren adineko pertsonak eta hauen familiarrak izango dira. Lehen adierazi dugun moduan, Azkoitian kokatuko dugu zerbitzua bertan gauzatu genuen ikerketan oinarrituz, izan ere, hirugarren adinekoi bideraturiko zerbitzurik ez dago eta hirugarren adinekoen bezero segmentua handia da. Bertan 65 urte baino gehiago duten norbanakoen kopurua 2.221koa baita. Hauen familiarrak ere bezero segmentu sendoa izango direlarik.

Ibiltzen enpresaren xede- bezeroa, laguntza teknikoak eta laguntza asistentziala behar duten norbanakoak dira.